

# AÑUA

– ARABA / ÁLAVA –

Añua herria Burgeluko udalaren parte da, Aguraingo Kuadrillaren barruan. Gasteiztik 13,5 kilometrorra dago, eta bi modutara hel daiteke bertatik: modu bat da Donostiarako bidea, N-104, hartuta, eta, gero, A-132 errepidea Elorriaga ondoan. Askartza, Argandoña, Andollu eta Trokoniz igaro ostean, A-4121 saihezbidea hartu eta artez-arte iritsiko gara herrira. Beste aukera bat da N-104 errepidetik zehar Ilarratzaraino joatea eta han Dulantzirako bidea hartzea, A-3110 errepidean zehar Burgelu atzean utzita. Eskuinetera dator Gazeta eta Añuarako irteera A-4121 errepidean zehar.

Donemiliagako Rejan *Aniu* izenez dago jasota herria, eta golde-burdina bat ordaindu ohi zion Hiraszaezako barrutiari. 1294an Añua izenarekin dator eta 900 marabedi ordaindu zituen Tarifan musulmanen kontrako kanpaina egiteko. Horrek erakusten du herri oparoa zela. Hala eta guztiz ere, XIV. mendeko krisia dela eta, Alfontso XI.ak batu egin zuen Añua 1337an sortu berria zen Burgeluko hiribildura.

La localidad de Añua pertenece al ayuntamiento de Elburgo y está dentro de la administración de la Cuadrilla de Salvatierra. Desde Vitoria, situada a 13,5 km, se accede de dos maneras: la primera saliendo hacia San Sebastián por la carretera N-104, tomando la A-132 tras Elorriaga, y después de pasar Ascartza, Argandoña, Andollu y Trokoniz, un desvío por la A-4121 conduce directamente al pueblo. La otra posibilidad es tomar la N-104, continuar hasta Ilárraza y tomar la salida en dirección a Alegría-Dulantzi, circulando por la A-3110 y dejando atrás Elburgo. A la derecha está la salida hacia Gazeta y Añua por la A-4121.

En el documento de la Reja el pueblo es denominado *Aniu*, y paga una reja dentro del Alfoz de Hiraszaeza. En 1294 queda registrado que Añua aporta 900 maravedís para la campaña de Tarifa contra los musulmanes, lo que verifica que era una localidad próspera. Sin embargo, con la crisis del siglo XIV, Alfonso XI anexiona Añua a la recién creada villa de Elburgo en 1337.

## *Andre Mariaren Natibitatea eliza Iglesia de la Natividad de Nuestra Señora*

**I**NGURUKO HISTORIAN esangura izan duen arren, Añuako Jaiokundearen parroquia ez dator aipatuta bibliografía tradizionalan. Eraikinaren burualdea, abside eta presbiterio batek osatua, XIII. mendearen amaierakoak dira. Elizaren gorputza eta dorrea XVI. mendekoak dira, eta erretaula, XVII. mendekoa.

Eraikinaren alde erromanikoari erreparatu, Añuako absidea, Araban beste inon ez bezala, erromanikorik gotikorako trantsizioaren erakusgarri da. Kanpoaldean, zortzialdeko burualdea baketoiek bereizitako bost atalek osatuta dago; bosgarrena, tenpluaren iparrean dagoena, sakristiak estalita dago. Absidea arku zorrotz itsuen bikoteek molduratuta dago, eta arkuoi eusten, zutabe mehe batzuek liraindu egiten dute multzo osoa. Elementuok ikusita, eraikina XIII. mendearen amaiera aldekoa dela atera daiteke, gotikoko formak aurreratzen baititu. Presbiterioaren hegoaldean ere –iparra kapera batek ostentzen du–, arku itsu

**A**PESAR DE SU PRESENCIA histórica en la zona donde se enclava, la parroquia de la Natividad de Añua apenas aparece mencionada en la bibliografía tradicional. El edificio consta de cabecera, formada por ábside y presbiterio, correspondientes al siglo XIII tardío, mientras que el cuerpo de la iglesia y la torre corresponden al XVI, y la sacristía y el retablo al siglo XVII.

Centrando la atención en la parte románica de la construcción, el ábside de Añua es un ejemplo en la transición del románico al gótico que no se vuelve a repetir en toda la provincia. Al exterior, la cabecera ochavada está compuesta por cinco paños separados por baquetones; el quinto, en la zona norte del templo, está oculto por el anexo de la sacristía. El ábside se moldura con arquerías ciegas de arcos apuntados en pareja, que se apoyan en columnillas finas que estilizan el conjunto. Esta solución sitúa la construcción de la cabecera en un siglo XIII avanzado, adelantando fórmulas



zorrotzak ageri dira, baina kasu honetan zutabe meheen gainean. Arkutxo zorrotz horiei eusten, landare-kapitel naturalistak daude (mahats-orriak eta haritz-hostoak), baita mentsulak ere –arku pare bakoitzeko erdikoek, animalien apaindura daukate, txoriak mokoka–. Inpostak ere uhindun zurtoinez daude apainduta, hosto, lore, gizakien buru eta animalia fantastiko eta benetakoekin.

Burualdean hiru leiho daude irekita, bat presbiterioko horman, eta beste biak lehen eta hirugarren ataletan. Arku zorrotzak dituzte hirurek, bina arkibolta eta deskarga-arku bat, bina zutabe alde bakoitzean. Arkibolten apaindura oso estilizatu da, gotikotik hurbil dago. Landare-elementu naturalistak erabili dituzte nagusiki, baina tradizio erromanikoa gorde duten motiboak ere ageri dira. Fusteak lauak dira, eta batzuk galdu egin dira. Presbiterioko leihoaren kapiteletan, ezkerretik eskuinera, hiru emakumezkoren irudia, txanoa daramate eta pomoak eskuetan, orri irtenak

del gótico. En el tramo recto del presbiterio, en el lado sur –ya que el lado norte queda oculto por la capilla–, continúa la molduración con las arquerías ciegas, esta vez dos parejas de dos arcos apoyados en columnillas. Estos arquillos apuntados descansan en capiteles vegetales naturalistas (hojas de parra, roble), pero también en ménsulas –las centrales de cada par de arcos, con decoración de animales, como pájaros picoteando–. Las impostas se decoran también con tallos ondulantes, diversos tipos de hojas, flores, cabezas humanas y animales reales y fantásticos.

En la cabecera se abren tres ventanas, una en el muro del presbiterio y las otras dos en los paños primero y tercero. Las tres presentan arcos apuntados, dos arquivoltas y sobreacto, con dos pares de columnas a cada lado. La decoración de las arquivoltas es muy estilizada, ya muy próxima al gótico, con elementos vegetales y naturalistas, pero hay motivos que aún mantienen la tradición románi-


*Elizaren ikuspegi orokorra / Vista general de la iglesia*







Burialdea  
Cabecera



Presbiterioaren  
begoaldeko horma  
Muro sur  
del presbiterio



dituzten kukuluak; barrualdean eskuinetara, berriz, buru bat angeluan eta albo bakoitzean harpia bat; dama bat, kokospeko uhal eta guzti. Lehen ataleko leihoan, oster, ezkerretik eskuinera, elementu hauek kapiteletan: bihotz formako hosto lauak; hosto bihurriak puntak azpikoz gainera jarriak; sei petaloko bi lore zirkuluetan sartuak, eztean hosto bat daukatelarik, eta gainean zurtoin irauliak, eta animalien buruak zurtoinen bitarteetan; azkenik, untxi bati heltzen dion arrano bat. Erdiko leihoak dobelaz apaindutako arkibolta bat baino ez du: mahats-orriak eta mahats-mordoak, palma-adarrak, emakumezko baten irudia ilea alde bietara zatitua, eta zapalota edo uretako landarearen irudi bat; nenufarraren antzeko landare hori ugari dago Arabako ibaietan, eta bertako heraldikari oso lotuta dago. Deskarga-arkua eta inposta apaintzeko, honako hauek: folioloak lehenengo ilaran, eta uhindun zurtoinak bigarrenean. Ezkerretik eskuinera, kapitelek erliebe eska-seko hosto-irudiak dituzte, kanpoan zerrenda horizontal bi dituztela, eta bertikalean jarrita barruan. Eskuineko aldean, barruan, hiru pertsonaia: bazterrekoek oihal bat zabaltzen dute pertsonaia nagusiaren aurretik, eta hegoak dituzte. Horregatik, ematen du aingeruek daramaten hildako bat irudikatzen dutela. Azkeneko kapitelean, orri naturalistak dira beheko aldeko apaingarria, eta beste estilizatuago batzuk, azpikoz gainera irauliak, goiko aldeko apaingarria.

Presbiterioko horman, arku itsuen multzoaren gainean, sei orriko loredun hiru idi-begi ageri dira, eta beste bi idi-begi hiru orrikoak. Ezaugarri berbereko beste idi-begi bat dago absidearen bigarren atalean; denek ere agerian uzten dute gotikorako bidean dagoela eraikin osoa. Teilatuean, abside osoaren inguruan, Lautadako harburu multzo garrantzitsuenetako bat dago. Eraikinaren hegoaldekoak dira berezienak, eta erromaniko garaiko arkaismoa uzten dute agerian. Besteek, berriz, landare-gaiak lantzen dituzte. Presbiterioaren hegoaldeetik hasita, ezkerretik eskuinera, sei motibo daude: maskaroi hondatu samarra; aurpegiera markatuko buru bat, mihia ateratzen itxura batean, eta kokospean elementu zilindriko bat daukala; buru estilizatu bat, lehoi baten burua kasko gisa duela; lehoi bat, erpa altxatuta duela eta bola bat eskuan; begi zorrotzeko zezen baten burua; eta juglare batena dirudien aurpegi irribarretsu bat, puntadun txano eta guzti.

Lehenengo atalean bost harburu daude: maskaroi apatsatu bat, begi nabarmenak eta mihi bitxi samarra kanpoan duela; dama bat, txanoa eta kokospeko uhal duela, gorra adi eta besoak aurrean batuta, jarrera exhibizionista; gizonezko baten irudia, hau ere jarrera exhibizionista; gizon bat jesarrita, pikudun mailu bat eskuan duela, hargina baita; burutzar beldurgarri bat, sudur zapal eta begi eta hortz zorrotzekin.

ca. Los fustes son lisos, y algunos de ellos se han perdido. En los capiteles de la ventana del presbiterio se ven, de izquierda a derecha, tres personajes femeninos con toca y pomos en las manos; cogollos de hojas salientes; a la derecha interior, una cabeza en el ángulo con una arpía a cada lado; y dama con barbuquejo. La ventana del primer lienzo recoge en sus capiteles, de izquierda a derecha, hojas acorazonadas planas; hojas curvadas vueltas hacia adelante; dos flores de seis pétalos inscritas en círculos, con una hoja en el vértice, y encima tallos vueltos con cabezas de animales asomando en los huecos; y águila en presa sobre un conejo. La ventana central sólo presenta la arquivolta exterior decorada por dovelas: hojas y racimos de uva, fragmentos de palma, un rostro femenino con el cabello partido y un ejemplar de zapalota o panela, planta acuática de la familia del nenúfar frecuente en los ríos de Álava y muy relacionada con la heráldica alavesa. El sobrearco y la imposta se decoran con motivos de hilera de foliolos, el primero, y tallos ondulantes con hojas, la segunda. De izquierda a derecha los capiteles muestran hojas de poco relieve en dos fajas horizontales en el exterior, y dispuestas verticalmente en el interior. En el lado derecho el interior muestra tres personajes: los de las esquinas extienden un paño por delante del personaje central, y aparecen alados, por lo que podrían representar a un difunto conducido por ángeles. El último capitel muestra hojas naturalistas, abajo, y otras estilizadas y vueltas hacia afuera, encima.

En el muro del presbiterio, sobre las arquerías ciegas, aparecen tres óculos floreados de seis hojas, y otros dos óculos debajo de sólo tres hojas. Otro óculo de estas características está en el segundo paño del ábside, y todos ellos indican la tendencia gotizante del conjunto. Bajo el tejado, y recorriendo todo el ábside, se halla una de las colecciones de canecillos más interesantes de la Llanada. Los más especiales se encuentran en el lado sur, y presentan un arcaísmo propio del románico, mientras que los demás recogen temas vegetales. Comenzando desde el sur del presbiterio, de izquierda a derecha, hay seis: un mascarón deteriorado; una cabeza de facciones muy marcadas, parece que sacando la lengua, y elemento cilíndrico bajo la barbilla; una cabeza estilizada con cubierta de piel de cabeza de león como casco; un león con garra levantada y una bola en ella; una cabeza de toro de ojos marcados; y una cara sonriente con capucha puntiaguda, como de juglar.

En el primer paño hay cinco canes: un mascarón caprichoso, de ojos exagerados y boca con extraña lengua colgante; una dama con tocado de barbuquejo, mirando hacia arriba, y brazos unidos delante, en actitud exhibicionista; una figura masculina, también exhibicionista; un hombre sentado blandiendo martillo de pico y corte como





Burualdeko xebetazuna / Detalle de la cabecera

Bigarren atalean, berriz, lau harburu daude: txanodun bikote bat, elkarri bizkarra ematen; bi pertsona zutabe baten alde bietan, elkarri hurbilduz eta eskua emanez; muntro baten burua, ahotzarra zabalik; eta buru irribarretsu bat. Hirugarren atalean, oster, lau harburu: hortz handiko buru bat, hondatua; zezen baten burua, eder eta estilizatu, eta beste bi, landare-bolutekin. Laugarren atalean, txanodun bola dauka harburu batek; bolak gainean bolutak dituztela; palmeta estilizatuak; kapitel forma duen mentsula bat, landareen apaindura eta erliebearekin. Bosgarren atala, lehen esan dugunez, sakristiak ezkutatuta dago.

Añuako elizaren barrualdeak nabe bakarra dauka, eta grisailez apainduriko tertzeletedun ganga batek estalita dago, Errenazimentu garaiko eraikuntza mota. Absidea sei zaineko nerbioko ganga batek estaltzen du, eta erdiko giltzarrian Bildotsa dator irudikatuta. Berorren gainean, nabe-rako alderantz, irudi txiki bat ageri da, haize-instrumentu bat jotzen ari dela. Eliza berriztatu zuten arte, burualde

una escoda, por lo que claramente representa a un cantero, y una gran cabeza monstruosa de grandes ojos almendrados, nariz ancha y dientes afilados.

El segundo paño presenta cuatro canes: una pareja de encapuchados dándose la espalda; dos personajes que se acercan dándose la mano a ambos lados de una columna; una cabeza monstruosa con las fauces abiertas; y una cabeza sonriente. El tercer lienzo muestra otros cuatro canes: una cabeza con grandes dientes, deteriorada; una cabeza de toro, bella y estilizada; y dos más con volutas vegetales. El cuarto paño muestra un can con bola de caperuza; bolas con volutas encima; palmetas estilizadas; y ménsula con forma de capitel, aprovechada con decoración vegetal y relieve floral. El quinto lienzo está, como ya se ha mencionado anteriormente, oculto por la sacristía.

Al interior, la iglesia de Añua presenta nave única con bóveda de terceletes con una buena decoración de grissallas, contemporáneas a la construcción renacentista. El





*Burualdearen  
alboko leiboa*

*Ventana lateral  
de la cabecera*



*Burualdeko  
leibo nagusia*

*Ventana central  
de la cabecera*





*Burualdeko leihoak  
barrualdetik ikusita*  
*Ventanas de la cabecera  
vistas desde el interior*



osoa erretaula nagusiak estaltzen zuen. Gaur egun, nabearen ezkerretara dagoen kaperan dago erretaula. Nerbioei beheraino datozen lau zutaberdik eusten diete, eta kapitela dekoratuak dituzte zutabeok: ezkerretik eskuinera, begi handiak eta ahotzarra dituen buru hondatu bat; hosto haragitsu naturalistak; boluta hondatuak; bertan omen zeuden hegazti biren hegoak, uhindun zurtoinak eta orriak gainean dituen inpostarekin. Burualdeko arku torala baketoidun angelu eta loredun kapitela dituzten pilastra gainera dator: ezkerrekoak zaindun palmetak ditu, eta eskuinekoak puntak iraulita dituzten bihotz formako orriak.

Kanpoko leiho biak azaltzen dira barruan; baita hirugarren bat ere. Bosgarren atalean dago irekita eta kanpoaldetik ez da ikusten, sakristiak estaltzen duelako. Eskuineko leihoa oso hondatuta dago, baina ematen du kapitela landare-irudiz apainduta zeudela. Arkiboltek ere landare-apaindura daukate. Erdiko leihoa gotikoa da, kanpoko arkibolta apainduta dauka eta polikromiaren arrastoak ageri dira multzo osoan; denak ere landare-motiboak dira. Landareak kapiteletan, orri estilizatuak puntak azpikoz gainera jarrita, edo orriak bertikalean gorantz jarrita; eta lore eta hirustadun inposta. Iparraldeko leihoak, berriz, erdi-puntuko arku darama, baketoidun bi arkibolta, zurtoinek inguratutako orri biribilez osatutako inposta; eta kapitela txikiak hiru zutabe txikik eutsirik, ezkerretik eskuinera apaingarri hauek ageri direlarik: buru bat, angeluan eta landareak, alboetan; orri bertikal estilizatuak; hiru adarmordo eta guzti, eta animalien buruak bitartetan; eta orri haragitsuak kanporantz irauliak. Kolore gorri, okre eta urdineko polikromiaren aztarnak igartzen dira.

Presbiterioa estaltzen, gurutze-ganga eta lore-giltzarria. Berorren arku toralari eusten dioten pilastrek zutabeak dituzte aurrealdean itsatsirik. Kapitela ederrak dituzte zutabe horiek, animalien gaiekin apainduta. Ezkerretara, harroinaren gainean, galgo biren irudiak, behera adi daude eta samatik elkarri lotuta daude biak; zutabe gainean, berriz, arrano hego handi bat, belarri luzeko untxi bati eusten ari dela; narrasti buztaneko lau hankako bi animalia, bentosadun garroek harrapatuta; eta, azkenik, zutarri gainean, bihotz formako orri bertikal lauak. Eskuinetara, zutarri gainetik naberantz, adarren irudiak, hiru orri bertikal lauekin; bi antzara, oso luma landuekin, lepoak gurutzatuta dituzte eta elkarri bizkarrari hozka eginez ageri dira; pertsonaia irribarretsu bat dago, hegazti horietako baten atzean; eta munstro baten maskara aho eta hortz handiekin, presbiteriorako zutarri gainean.

Hegoaldean den kanpoko leihoan orri naturalistaz apaindutako bi arkibolta ageri dira. Ezkerreko kapiteletan, barrutik kanporantz, zurtoinak eta orri estilizatuak puntak iraulita, eta zezen-buruak bitartean; eta zaindun orriak

ábside se cubre con bóveda de seis nervios, con una clave central donde se representa el Cordero, y, sobre él, hacia la nave, una pequeña figura que parece tocar un instrumento de viento. Hasta la restauración de la iglesia, toda la cabecera estaba oculta por el retablo mayor, que hoy se sitúa en la capilla a la izquierda de la nave. Los nervios se apoyan en cuatro semicolumnas que bajan hasta el suelo y que presentan capiteles decorados: de izquierda a derecha, una cabeza deteriorada con ojos grandes y fauces; hojas carnosas naturalistas; volutas deterioradas; y dos aves de las que sólo quedan las alas, con imposta de tallos ondulantes y hojas encima. El arco toral de la cabecera apea en pilastras con ángulos baquetonados y capiteles florales, el de la izquierda con palmetas aveneradas, y el de la derecha con hojas acorazonadas con las puntas hacia arriba.

Al interior aparecen las dos ventanas exteriores, más una tercera que se abre en el quinto paño, exteriormente oculta por la sacristía. La ventana derecha está muy deteriorada, aunque se intuye que los capiteles serían vegetales. Las arquivoltas presentan también decoración vegetal. La ventana central, ya gótica, con la arquivolta exterior decorada y restos de policromía en todo el conjunto, presenta temas vegetales en sus capiteles, hojas estilizadas vueltas hacia afuera o verticales hacia arriba, e imposta con flores y tréboles. La ventana del lado norte tiene arco de medio punto, dos arquivoltas baquetonadas, imposta de hojas redondeadas rodeadas por tallos, y capiteles pequeños sobre conjuntos de tres columnillas, de izquierda a derecha: una cabeza en ángulo y vegetales a los lados; hojas verticales estilizadas; tres ramas con racimos y cabezas de animales en los huecos; y hojas carnosas vueltas hacia afuera. Conserva restos policromos en tonos rojos, ocre y azules.

El presbiterio se cubre con bóveda de crucería y clave floral. Su arco toral descansa sobre pilastras con columnas adosadas en sus frentes, y sus capiteles, muy bellos, recogen temas animalísticos. A la izquierda, aún sobre el pilar, se ven dos galgos con las cabezas bajas, atados uno a otro por el cuello; sobre la columna hay un águila con grandes alas en presa sobre un conejo de largas orejas; dos cuadrúpedos con cola de reptil apresados por tentáculos con ventosas; y sobre la pilastra, hojas acorazonadas verticales muy planas. En el lado derecho, sobre la pilastra hacia la nave, hay ramas con tres hojas verticales planas; dos ocas o gansos, con las plumas muy bien labradas, con los cuellos cruzados mordiendo uno el lomo del otro, y un personaje sonriente tras el cuerpo de una de ellas; y máscara monstruosa de enormes dientes sobre la pilastra hacia el presbiterio.

La ventana sur exterior presenta al interior las dos arquivoltas decoradas con hojas naturalistas. Los capiteles





*Burualdeko leihua barrualdetik / Ventana de la cabecera desde el interior*

iraulita dituzten zurtoinak. Beste aldean orri estilizatuak, barrualdean trepano handia dutenak; eta kanpoaldean, sei petaloko lore bat zirkulu baten barruan barneko aldean, eta zortzi puntako izar bat, kanpoko aldean. Puntak gurutzatuta daude, eta bolutak ere badituzte, animalien buruak bi-

de la izquierda muestran, de fuera adentro, tallos y hojas estilizadas hacia afuera y cabezas de toro en los huecos; y tallos con hojas aveneradas hacia afuera. En el otro lado se ven hojas estilizadas y con mucho trépano en el interior, y en el de fuera, una flor de seis pétalos inscrita en un





Garaipen-arkuko  
eskuineko kapitela

Capitel derecho  
del arco triunfal



Garaipen-arkuaren  
ezkerreko kapitela

Capitel izquierdo  
del arco triunfal



tarteetan daudela. Kapitela hori eta Argandoñako absidako barrualdeko leihoan oraintsu aurkitutakoa oso antzekoak dira. Inpostan, orriak, loreak eta zurtoin kizkurrak, eta zutabetxoetako kapiteletan landare-gaiak. Polikromiaren arrastoak ere badaude. Elizaren barruan, hormaren kontra, harburu bat dago, zati bat apurtuta, eta zezen baten irudi estilizatua dauka, kanpoko aldean dagoen beste baten oso antzekoa.

Eliza berritu zutenean, horma-irudi batzuk aurkitu zituzten, bai absidean, bai presbiterioan. Kolore gorrixkak erabiliz margotuta zeuden, harlandu zatietan eginda; triangeluak, hirusta eta zirkulu barruko loreekin zerrendak datoz osatuta, baita gaztelu bat eta pertsonaia batzuk azaltzen diren eszena bukatugabe bat ere. Añuatik ez oso urrun, Alaitzako Jasokundearen Elizan ageri diren margoen oso antzeko dira; hortaz, hauek ere XIV. mendearen bigarren erditik aurrerakoak direla esan dezakegu. Jerusalemeko irudi bat ere bazetorren irudikatuta elizaren atarian, kanpotik, baina handik kendu egin zuten, eta gaur egun eliza barrura eramanda dago.

Testua eta argazkiak: REA

círculo en la cara interior, y una estrella de ocho puntas entrelazada en la cara exterior. Sobre ellas, volutas vueltas con cabezas de animal en los huecos. Este capitel recuerda mucho al descubierto recientemente en la ventana interior del ábside de Argandoña. La imposta recoge hojas, flores y tallos ondulantes, y los capiteles de las columnillas temas vegetales. También conserva restos de policromía. Dentro de la iglesia, apoyado contra la pared, hay un canecillo, parcialmente roto, con la imagen de un toro estilizado, muy similar a uno del exterior.

Durante la restauración de la iglesia fueron descubiertas, tanto en el ábside como en el presbiterio, una serie de pinturas murales en tonos rojizos, con despiece de sillar, triángulos, franjas de tréboles y círculos con flor, así como una escena incompleta con un castillo y varios personajes. El evidente parecido que presentan con respecto a las cercanas pinturas de la iglesia de la Asunción de Alaitza, permite datarlas hacia la segunda mitad del siglo XIV. También apareció una representación de Jerusalén en el pórtico, al exterior, que hoy se conserva arrancada y trasladada a otro soporte dentro de la iglesia.

Texto y fotos: REA

### Bibliografía / Bibliografía

CASTRO, C. de, 1915, pp. 130-131, fig. 42-43; LABORDA YNEVA, J., 2003, pp. 246-247; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 105-106; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., I, 1997a, p. 291; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, pp. 53-54; LÓPEZ DEL VALLADO, F., 1921b, pp. 874-875; PORTILLA VITORIA, M. J., 1968, p. 70; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, pp. 199-203, fig. 288-293, 296-298; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, p. 69; PORTILLA VITORIA, M. J., 1991, pp. 117-118; VENEGAS GARCÍA, C., 1994, pp. 85-166.